

**“EUSKERAZKO DOTRINAK” liburuaren AURKEZPENA**  
(Bilbon, 2019ko otsailaren 28an)

Liburu honen sustraiak: noiz eta zelan sortu zan?

Oraintsu argitaratua bada be, bere oinarrira joan nahi badogu, bost hamarkada atzerantz egin beharrean gagoz.

1969. urteko udabarrian, Markinako parrokia txiki bateko arduradun nintzala, Larruskaingo eta Urberuagako abade nintzala, Cirarda Jaunak, une haretan Bizkaiko Eleizearen Gotzain Administratzaile zala, Gotzaitegira deitu eustan eta beharrian bat aurkeztu eta eskari bat egin eustan:

Eleizbarrutian, *Katekesi arazoekin arduratuko dan euskeraz dakian abade baten beharrian daukagu. Joango zinake ikasketak batzuk egiten Madrileran, arlo horretarako apur bat prestatzen?*

Eleizbarrutiaren zerbitzurako abadetza hartuta nengoan ezkerreko, neure baietza emon neutsan eta hurrengo udaguenean Madrillen nengoan, Salamankako Unibertsitateak han eregitako eukan Pastoral Ikastegi Nagusian.

Katekesian Diplomatura lortzeko ikasketak urte bitan bananduta egotzan. Eta beste hainbat idazlanen artean, bigarren urtearen amaierarako *tesina* deitzen jakon lan bat prestatu behar neban. Eta lan hori zertaz egin asmatzen nenbilela, non esaten deustan nire tutoreak:

*“Zergaitik ez dozu hartzen euskaldun sermolarik ospetsu bat, eta bere lanak katekesi aldetik aztertzen?”*

Sujerentzi horregaz, gaia bideratuta egoan. Herriko semea zan *Prai Bartolomé Santa Teresa* karmelitearen sermoiak aztertuko nituan katekesi aldetik. Eta orduantxe bururatu jatan, *tesina* haren sarrera lez atalburu hau sartzea: **“Kristau-Ikasbidea Euskal Literaturan”**.

Ehundik gora Kristau-Ikasbideren izenburuak jasoten nituan zerrenda haretan. Euskalki guztietakoak. Lagunak nituan euskaltzale ospetzu biren laguntzaz (Karmelo Etxenagusia eta Aita Lino Akesolo) eta Euskal Bibliografia liburuetan aurkituak. Arlo honetan nik emondako lehenengo pauso apala eta harrezkero beti osotzen joan nazena hauxe izan zan. Hasiera baten jakinmin edo kuriosidade hutsa izan zana (*ea euskaraz ze argitaratu dan dotrinen arloan?*) eta gero bizitzako “hobby” izateraino heldu dana.

Hurrengo pausoa, Dotrinok bilatzea eta batzea izan da. Eta gure inguruko Biblioteka gehienak aztertu ditut: Labayrukoa, Lazkaoko Beneditarrena, Arantzazukoa, Esukaltzaindikoa, Karmeldarrak Markinan eta Begoñan dituenak, Eusko Legebiltzarrekoa, Gazteizko Sancho el Sabio fundazinokoa, Deustuko Unibersitatekoa, Loiolako Santutegiakoa, Bizkaiko Foru Aldundikoa... eta, Iparraldean, Belokeko beneditarren monastegiakoa.

Ni bilatzen ibili nazan urteetan, toki danetan, erreztasun guztiak izan ditut aurkitzen eta nahi nituanak fotokopiatzeko. Eta gehienetan, originalak etxera ekarri, hemen fotokopiatu eta barrero bere tokira bihurtzeko be bai. Eta, era horretan, euskalki guztietako hainbat dotrina eta euren argitalpen ezbardinak eskuratu ahal izan ditut.

Oporraldietako egun batzuetan, Kalagorriko eta Gazteizko Eleizbarrutietako Artxiboetan be emonak ditut. Kontuan izan daigun gure Bizkaiko eleizbarrutia sasoi baten Kalahorrakoaren barruan sartzen zala eta geroago Gazteizkoan.

Zer egin batutako Dotrina guztiokin?

Danak batera lantzea ezinezkoa zan. Eta orduan, etxetik hastea erabagi neban. Eta aurkezten nabilen liburua dozue nire ***Bizkaierazko Dotrinen*** gaineko lanaren frutua.

Kristau-Ikasbide edo Dotrinen arlo honetan, XVI. Gizaldian, ia hamarkada bi luzatu zan (1545eko abendutik 1564ko urtarrilera arte) **Trentoko Kontzilioak** aparteko garrantzia dauka: erlejino gaietan eleiztarren artean ikusten zan ezjakintasuna gauza kezkarri eta astuntzat jorik, erabagi garrantzitu bi hartu zituan:

- Domeketako mezetan, *Dotrinea irakastea eta azaltzea*.
- Parrokoei eginkizun hori beteten laguntzeko, Kontzilioaren erakutsiak eta Eleizearen fedearen laburpen on bat jasoko eban Dotrina bat egitea. Handik urte bira argitaratu zan, 1566. urtean, "*Erromako Dotrinea*". Gero, Eleiza osoan, agertzen joango ziren dotrinen oinarri izango zana: Fedeko egiak, Sakramentuak, Jaungoikoaren Legeko Aginduak eta Otoitza.

Bizkaierazko dotrinen historia "*Betolazaren Dotrinea*" deitzen jakonagaz hasten da. Kalagorriko Gotzainaren aginduz 1596 urtean Bilbon argi-

taratua. Bizkaieraz eta gazteleraz idatzitako kartilla oso laburra da. Hain zuzen bizkaieraz idatzitako ezagutzen dan lehenengo liburua da. Eta ezagutzen dan orijinalaren ale bakarra, Gazteizko Lege Biltzarreko Bibliotekan gordeten da.

Trentotik Vatkanoko II. Kontzilia bitartean, lau gizalditan zehar, beste 30 dotrina argitaratu dira bizkaieraz. Egileen bizitzako datu batzuk jasoten ahalegindu naz eta bakotxaren argitalpen ezbardinen barri batzen be bai. Holan argiago ikusi daikegu zelako arrerea eta zabalkundea izan daben.

Gure dotrinen baliorik haundiena ez dago euren edukinean, hau gehien batea ia bardina da; ezta metodolojian be: itaun-erantzunen bidez emoten ditue euren azalpenak. Aparteko berezitasuna hizkuntzan dago, erabilten daben euskeran. Hemen agertzen jaku gauza berbera zelan azaltzen dan Bizkaiko inguru eta sasoi ezbardinetan.

Gazteleraz idatzitako dotrinetatik gehien bizkaieratu dan Kristinau-Ikasbidea Asteterena izan da. San Pio Amargaren aita santuak bere Erromako eleizbarrutirako egindako dotrina laburrak edo haren zatiren batek be izan diru iru edo lau itzulpen.

Berton sortutako dotrinen artean, nik batez be hiru azpimarratuko neukez:

- Arzadunek idatzia: Astetek eta Ripaldak gazteleraz idatzitakoen antzekoa, baina ez hitzulpena. Gizaldi biren barruan, gitxienez 18 bider argitaratua izan dana. Oso ezaguna eta erabilia Durango aldean eta Euskal Herri osoan be bai.

- Olaetxeak egindakoa: lehen argitalpenak dotrinea bakarrik jasoten eban, baina hurrengo hogetaz argitalpenetan, eleiz bizitzan hain barruan sartuta egozan debozino eta otoitz askoz horniduta agertzen zala. Bizkaiko abadeentzat lagungarri ikaragarria. Eta argitalpen batetik bestera, hainbat ikutu eta aldakuntza jasotakoa, bai grafia eta hizkuntza aldetik eta edukinetan eurentan be bai.

- Gazteizko Eleizbarrutiko Dotrinea. 1921 urtean Eguskitzak bizkaieraz jarria eta argitaratua. Ordurarteko dotrina guztiak, abade edo erlijioso konkretu batzuk, Gotzainaren baimenagaz agertutakoak ziran. Eta hau izan zan Eleizbarrutiko lehenengo kristinau-Ikasbide ofizial bakarra, gero Bilboko eleizbarrutia sortzean, gure eleizbarrutikoa bihurtuko zana.

1957-etik aurrera, Irakaskuntzako Gotzain Batzordeak Madrilen pres-tatu eta hemen euskeratuak izango dira gure eleizbarrutian erabiliko diran dotrinak.

Liburu honen lehenengo zatia, Bizkaierazko dotrinen historiaz osotuta dago. Bigarrenean, ia liburuaren erdia, hiru gehigarri jaso ditut:

- Dotrinearen eskuizkribuak, hor-hemen gordeten diranak eta ezagu-tzen diranak. Batzuk segurutik Kristau-Ikasbidea emoterakoan erabiliak izango ziranak; eta besteak, Bonaparte Printzearen aginduz inguru batzuetako euskeraren ezaugarri lez bereziki idatziak eta ez dotrinea emoteko.

- Edesti Deunak eta Otoitz liburuak. Katekesi ekintzan ez da baka-rrik bilatzen dotrinea ikastea edo irakastea. Biblian eskeintzen dan salbamen ekintzaren barri emotea eta otoitzera bideratzea be beharrezko ikusten da. Eta, beste alde batetik, ez da bakarrik umeen gauzea, nagusiak be beharrez-koa dabela ikusita, otoitz liburuaren zerrenda eskeintzean, bereziki txikientzat eginak eta nagusientzat eginak eta honeek erabiltzekoak be sartu dira.

- Eta hirugarren gehigarrian sartu ditut, Dotrina azalpenak eta Sermoi liburuak. Trentok agindu eban lez, herriari dotrinea domeketan azaltzeko, abadeentzat lagungarri moduan era berezian idatzitakoak.

Badakit aurkezpen hau luzeegia eta aspergarria izan dana... Baina, parkatuko deustazue. Lanaren ikuspegi orokor xamarra emon nahi izan dot, gaia bera be askorentzat nahiko ezezaguna izango dala uste izanik.

Itxi egidazue berba batzuk erderaz esaten orain, esandakoa ulertuko ez ebenei begira.

Perdonadme los que, pacientemente me habéis escuchado todo este rollo sin comprender apenas nada. Quisiera ofreceros una pequeña síntesis de este trabajo que estoy presentando.

Al leer el título del libro **EUSKERAZKO DOTRINAK** se corre el riesgo de caer en un malentendido, si no lo completamos con lo que se dice en la última línea: **I. Bizkaieraz.**

Durante casi cinco décadas he trabajado recopilando y fotocopiando todos los Catecismos en euskera que he encontrado a mi alcance, en todas sus formas dialectales en la mayoría de las Bibliotecas del enorno. No ha sido posible abarcar todo ello al mismo tiempo y de momento tengo la alegría de presentar el trabajo sobre los **Catecismos en euskera vizcaíno**. Os comunico que estoy trabajando con los de euskera guipuzcoano.

El primer catecismo vizcaíno se publicó en Bilbao el año 1596. Es un texto bilingüe, a dos columnas, en castellano y euskera; muy breve. El único ejemplar del original que se conoce se conserva en Gasteiz, en la Biblioteca del Parlamento Vasco.

Posteriormente y hasta el comienzo del Concilio Vaticano II (1962) se han publicado otros 30. Varios de ellos con el título en castellano y el contenido interior todo y sólo en euskera. Otros dos de la treintena, al igual que el de Betolaza, ofrecen el texto bilingüe a dos columnas. Y en esta relación se incluye uno escrito a tres columnas con el texto de un Catecismo de Bayona traducido al vizcaíno, al castellano y al guipuzcoano. Su autor fue R. M. Azkue; pero de su formato en tamaño folio se deduce que no fue escrito para su uso en la catequesis, sino con fines lingüísticos.

Entre los catecismos publicados en euskera vizcaíno el que más difusión ha tenido es el escrito por Juan Antonio Moguel, el autor de la famosa novela "Peru Abarca", con al menos 46 ediciones que se conocen. Le siguen por el número de ediciones, el Catecismo-Devocionario de Olaetxea (25), el de la Vicaría de Busturia (22), el de Arzadun (18) y el de los curas de Llodio (14).

En esta historia, un catecismo más problemático: En 1849, D. Agustín de Burgoa publica un Catecismo en euskera para Otxandiano. Con las aprobaciones pertinentes envía el texto de un manuscrito que se usaba en el pueblo a la imprenta. El alcalde y el ayuntamiento corren con los gastos de imprenta y se distribuye por el pueblo. A los pocos meses llegan al Obispado de Calahorra un par de denuncias, una de Vitoria y otra desde el mismo

Ochandiano; ésta última firmada por un cura de la misma parroquia. La razón de la denuncia: al transcribir el texto tal como hablaba la gente no alfabetizada, con su modo de vocalizar, no recogía la doctrina cristiana tal y como lo entiende la Iglesia y se prestaba a enseñar herejías. El Gobernador Eclesiástico de Calahorra (no había Obispo) ordena al Vicario de Durango una nueva revisión del Catecismo; los nuevos censores dan la razón a los denunciadores. Y el Gobernador Eclesiástico ordena la recogida y quema de todos sus ejemplares.

Es muy importante en esta historia de los catecismos vizcaínos, el momento en el que se procede a la elaboración del Catecismo de la Diócesis de Vitoria: convocatoria de un concurso, nombramiento de una Comisión para examinar los textos presentados, la comisión presenta los textos finalistas al Prelado... Reelaboración definitiva del texto castellano y se hacen las traducciones al guipuzcoano y al vizcaíno. Son éstas las que primero se publican, en 1921. Y dos años más tarde la edición castellana. Ya tenemos el primer Catecismo oficial de la Diócesis.